**2005EKO URRIAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA**: Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zazpia.

**HILABETEA:** Urria.

**URTEA:** Bi mila eta bosta.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA**: Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
Ana Asla Egialde
Alfonso Segade Gonzalez
Maria Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Iñaki Saldaña Herrero

**ETORRI GABEAK:** Jon Olano Arrese
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jon Kortaberria Lasa
Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Gonzalo Zaldo eta Arana

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bilkuran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

**1.- AURREKO AKTA**. 2005eko irailaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA**. 7. HAri buruz Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea.

Alkateak, hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“**Gaia: 7. Hirigintza Areako (7. HA) eta zehazki, 7.1 Egikaritze Unitateari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko hasierako onespena**.

**AURREKARIAK**

**1.-** 2004ko azaroaren 4ko datarekin, Udalbatza Osoak onartutako eta Beasaingo Udala, HUNOLT, S.A. eta enpresaren kontuhartzaile judizialarekin sinatutako hirigintza-hitzarmena kontuan izanik, zerbitzu teknikoek 7. Hirigintza Areako (7. HA) eta zehazki, 7.1 Egikaritze Unitateari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentua prestatu dute.

2.- Planeamenduko Araudiaren 125. artikuluaren arabera, Egitasmo Orokorrak eta Arau Subsidiarioen izapidetzeak, irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak onartu baino lehen, Aurrerakina jendaurrean jartzea eskatzen dute. Zentzu horretan, 7. Hirigintza Areako Aurrerakina, “31. Area (A 31) Agauntza” izenarekin, eremu berdina baita, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Aurrerakinean jasota gelditu da eta jendaurrean jarri zen, 2005eko martxoaren 24 eta 29an eta apirilaren 8an, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratu eta alegazioak aurkezteko bi hilabeteko epea eman zen. Ondoren, 2005eko apirilaren 12, 13 eta 18ko datekin, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, akats-zuzenketak argitaratu ziren, Aurrerakinarekin batera, Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana ere jendaurrean jarri zela adieraziz. Halaber, 2005eko apirilaren 7ko datarekin, Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana, Garapen Eramangarrirako Sailera bidali zen eta orain arte ez da beren txostenik jaso.

3.- Jendaurrean jartzeko epean, Jose Ayerbe Mendizabal jaunak, Urbialde Iru, SM-ren ordez, A-31 Agauntza eremuaren (Hunolt) mugapena aldatzea eskatu zuen, enpresarekin eginiko aurreko hitzarmenaren arabera, eta bi unitate independente sortzea, 96,5 etxebizitza/Ha-ko erabilera-intentsitatearekin.

4.- 2005eko irailaren 29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, aipatutako iradokizuna ebatzi zen, adieraziz, A-31 Agauntza arearen antolamenduak eta kudeaketak ez dutela inongo eragozpenik sortzen haren eskemaren garapenean. Eremuaren antolamendua, beraz, bat dator Agauntza ibaiaren ezkerreko ibar eta lursailen garapenerako (Beasain eta Lazkao arteko mugaraino) proposatu den hiri-forma zabalenenarekin. Bilera horretan bertan eta uztailaren 22ko 183/2003

Dekretuaren 9.2 artikuluaren babesarekin, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze-dokumentua lantzeko irizpideak eta irtenbideak onartu ziren eta horren ondorioz, baita aipatutako Agauntza 31 Areakoak ere.

5.- Horren ondorioz, Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

**Lehenik**. Beasaingo Arau Subsidiarioen berrikuntzako, Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana, 7. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketari atxikitzea, egun indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetu delako.

**Bigarren** Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 7. Hirigintza Areako (7. HA) eta zehazki, 7.1 Egikaritze Unitateari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak 2005eko irailaren 29ko Osoko Bilkuran onartutako irizpideak eta irtenbideak jasotzen dituelako.

**Hirugarren**. 7. Hirigintza Areako (7. HA) eta zehazki, 7.1 Unitate Egikaritzean aurreikusitako etxebizitzak sustatzeko erregimena ondorengoa da: **etxebizitza libreak**, **babes ofizialekoak** eta etxebizitza **kontzertatu eta prezio mugatua** dutenak. Azken hauen araudia, nahiz sustapen ezberdinen egikaritze- eta entrega-ekitaldiak zehaztea, aipatutako egikaritze-unitateko jabeekin sinatu beharreko hirigintza-hitzarmenean aurreikusiko dira. Hitzarmen hau, orain proposatzen den aldaketari behin-behineko onespena ematen zaionean, onartu beharko da.

**Laugarren**. Espediente jendaurrean jartzea eta iragarkiak GAOn eta Berria eta Diario Vasco egunkarietan argitaratzea, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko hilabeteko epea emanez."

Horrezaz gain Alkateak adierazi du, lehen Hunolt-enekoak ziren industria-lurretan orain etxebizitzak egiteko lurzorua izango dela eta eremu horretan 87 etxebizitza libre, 13 kontzertatu eta prezio mugatuko eta 25 babes ofizialeko etxebizitza egitea aurreikusi dela. Guztira 125 etxebizitza. Etxebizitza horien profila ondorengoa da: sotoa+soto-erdia+ beheko oina+3 oin+atikoa+teilatupea. Aldaketa horren iturria, bere garaian Udalak eta Hunolt enpresak sinatutako hitzarmena da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): "Nos vamos a abstener, porque pensamos que se corre demasiado antes de que se apruebe la Ley del Suelo. Con la nueva Ley del Suelo, se harían más viviendas protegidas y a la vez, se concretaría el precio de las tasadas.

Por otra parte y al hilo de las conversaciones mantenidas con los trabajadores de Hunolt y que van a ser ninguneados, pensamos que deberia de haber una actuación de apoyo respecto de una empresa que desaparece.

Pedimos por lo tanto un aplazamiento de esta decisión, por los motivos apuntados."

Julio Herreros jaunak (PP): "Visto en comisión. De acuerdo."

PSE-EE/PSOEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): "En respuesta a Iñaki, decir que aquí se cumplen escrupulosamente los porcentajes previstos en el borrador de la Ley del Suelo, aunque no creemos que ese borrador se apruebe tal y como está. La única discrepancia es el módulo a aplicar en la vivienda concertada. Respecto de los trabajadores, por nuestra parte se han cumplido los compromisos que teníamos. Nosotros no somos empresarios y ellos son los que tienen que optar por seguir o no en la empresa. No depende de nuestra voluntad sino de la coyuntura existente en cada momento."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Une honetan sartu Jon Kortaberria Lasa batzarraldira.

**3.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN ALDAKETA (1. HA)**. 1. HAko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari buruzko proposamena.

Alkateak, hirigintza-batzordearen proposamenaren berri eman du:

"Gaia: 1. HArekiko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketa.

**AURREKARIAK**

**1.-** 2005eko irailaren 29an, Udalbatza Osoak, behin-behineko onespena eman zion, 1. HArekiko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zitzaion behin betiko onespena emateko.

**2.-** 2005eko urriaren 19ko datarekin, Udaletxean, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Sailaren idatzia jaso zen, behin betiko onespen-epea bertan behera utziz, espedientean Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana atxiki ez zelako, ezta uztailaren 22ko 183/2003, Dekretuan adierazten duen moduan izapidetu ere.

**3.-** Orain dela gutxi, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza- eta egokitze-dokumentuaren Aurrerakinarekin batera, Ingurumen--inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana jendaurrean jarri zen, 2005eko apirilaren 12, 13 eta 18ko datekin, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarkiak argitaratu ziren. Halaber, Garapen Eramangarrirako Sailera bidali zen eta orain arte ez da berek bidalitako inolako txostenik jaso.

Horren ondorioz, Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

**Lehenik**. Beasaingo Arau Subsidiarioen berrikuntzako, Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana, 1. HArekiko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari atxikitzea, egun indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetu delako.

**Bigarren**. Erabaki honen berri, Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlanarekin (behar den moduan eginbideak eginda) batera Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea, 1. HArekiko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketarekiko dokumentuari behin betiko onespena emateko epe-etetea altxatzeko."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez, eta bide batez legeak ezartzen duen quorumarekin, onartu da proposamena.

**4.- KREDITU-TRANSFERENTZIA**.

Alkateak proposamenaren berri eman du: "Aurten gai bat aztertu da, gazterian, kulturan eta ongizatean, gazte-gune bat prestatzeko. Hori dela eta Urbietan, beheko solairuan, 200m² egokitzen ari dira. Horietatik zati bat, dantza-arloko ekitaldietarako izango da eta beste bat gazte-gunerako. Hori aurrera eramateko, 90.000 € behar dira eta aurrekontuan, 20.770,60 € bakarrik zeuden aurreikusita. Kreditu-aldaketa egitea proposatzen da eta hori osatzeko, euskara-sailetik, 14.000 €-ko ekarpena egiten da, ongizatetik, 10.000 €-koa eta kulturatik 30.000 €-koa. Horri guztiari, beste aurrekontuko maileguen interesak gehitzen zaizkio, gutxiago izango direlako. Guztira gehikuntza 70.000 €-koa da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “La iniciativa nos parece bastante buena, pero la duda que tenemos es si es un gazteleku con afin partidista, más bien de afines PNV/EA, o si es un sitio donde todos los jóvenes puedan juntarse y realizar actividades. Nosotros creemos que el gaztetxe cumple una función social igualmente parecida. Pensamos que se puede combinar un centro de recreo con el gaztetxe y con otras actividades. De momento la idea nos parece buena, pero nos vamos a abstener.”

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Alfonso Segade Gonzalez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Lo ví ayer con la gente que va a urbanismo, porque yo falto con frecuencia, y me decían que no tenían conocimiento de este estudio, tampoco sabemos si se ha adjudicado, si no se ha adjudicado, cómo se ha hecho, va por partidas, hago fracciones y entonces hago tú y tú, o saco a concurso porque son más de cinco millones…Es que no sabemos nada.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Esto lo ha llevado el aparejador municipal. Se ha hecho por gremios, él está controlando todo el desarrollo y está solicitando a cada gremio tres ofertas”.

Alfonso Segade Gonzalez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Por el volumen que es, entiendo que tendría que ir a concurso.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Se ha hecho por gremios, albañilería, fontanería, calefacción, carpintería, etc.”

Alfonso Segade Gonzalez jaunak (PSE-EE/PSOE): “¿Se ha visto esto en alguna comisión?.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “No, no se ha visto en ninguna comisión. En eso tienes razón.”

Alfonso Segade Gonzalez jaunak (PSE-EE/PSOE): “Bueno, por un tema de forma, votaremos en contra, aunque la idea sea fantástica.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “A Iñaki decirle que estamos hablando de jóvenes de 13 a 17 años. El afin partidista, siendo la iniciativa del Ayuntamiento, es mucho suponer. Todas las actividades que sean del Ayuntamiento, están abiertas a todos. Ahí tenemos la ludoteca, kuadrilategi, etc.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak 10 (EAJ/PNV-EA)
Aurkako botoak: 2 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 1 (EB)

**5.- HITZARMENA**. Hitza egunkariarekin hitzarmena sinatzea.

Alkate jaunak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman eta honek ondorengoa azaldu du: “Orain dela urte eta erdi Hitza-koak etorri ziren diru-eskaera bat egitera udalez udal, Goiekiren bitartez. Denboraldi luze honetan aztertu egin dugu ea egokia zen euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko. Hitzak zein bide jarraitu duen ikusita eta lana nola egiten duen, erabaki zen tresna egokia zela aipatutako irakurzaletasun hori bultzatzeko. Horren ondorioz, erabaki zen urtero 2 €/biztanleko dirulaguntza ematea. Goierri Telebistari ematen zaion dirulaguntzaren berdina da.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Se ha creado una comisión de seguimiento. La primera propuesta era que Hitza y Goierritarra, a quien se le daba una ayuda, formaran un conjunto que fuera el perceptor de la ayuda de 2 €. Entre ellos no han llegado a un acuerdo y a falta de éste, Goieki decidió que la ayuda económica fuera para Hitza, y Goierritarra no va a recibir ninguna ayuda de las que antes recibía.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Me parece estupendo que se hagan las cosas en euskera, pero volvemos a un defecto de forma. Goierritarra, lleva alrededor de seis, ocho años editándose, y yo recuerdo que en el último presupuesto este tema se abordó y se llegó a la conclusión de que la subvención para los grupos que no se ponen de acuerdo y que se prima a uno y se penaliza al otro, yo no lo entiendo. Vamos a votar en contra de este tema, pero no por la revista en sí, sino por la actitud. Yo recuerdo que no hace mucho tiempo, hacía aquí una observación de la revista Abaliñe, que se le niega la subvención por no ser íntegramente en euskera. Creo que hay que hacer criterios unificados, porque de lo contrario no puede ser.”

Alkateak, Igartzatik ordezkariari esan dio Goiekin baloratu zela bi prentsa horiei, hau da, Goierritarrari eta Hitzari, beren artean adostasuna egonda, bientzat dirulaguntza hori ematea, baina beren artean adostasunik ez delako izan, lehentasuna Hitzari eman zaiola, batek betetzen duena besteari kendu egin diola uste dutelako. Gure asmoa bat indartzea izan da dio eta Hitza egunero ateratzen denez eta irakurlearentzat egokiagoa dela uste dugulako, dirulaguntza Hitzari ematea erabaki dela azaldu du.

Julio Herreros jaunak (PP): “Los exbatasunos solo pueden ir a titulo personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el publico asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente ( Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Reitero lo que he dicho en otros Plenos. Me hago responsable.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PP, EB)
Aurkako botoak: 2 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da, ondorengo hitzarmenaren edukia eta Alkate jaunari baimena ematea hitzarmena sinatzeko:

**“GOIERRIKO UDALAK eta GOIERRIKO HITZAren ARTEKO HITZARMENA GOIERRIKO HITZArekin LANKIDETZA ANTOLATU ETA FINANTZATZEKO**

Ordizia, 2005-ko xxxxx xan

BILDURIK

Alde batetik, Goierriko Udaletako Alkate-Lehendakari jauna/andereak, Udalen ordezkari bezala. Bestetik, Iker Galparsoro jauna, Goieki-ko zuzendari moduan eta azkenik, Lierni Ormazabal anderea, Goierriko Hedabideak S.L.-ko kudeatzailea, Goierriiko HITZAren ordezkari moduan. Hiru aldeok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta zera

AZALTZEN DUTE

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei, horretarako behar diren hizkuntza politika neurriak hartu eta bultzatzea, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
Aurrerapauso horiek bermatzeko eta gaur egun komunikabideek duten garrantzia kontutan harturik, ezinbestekotzat jotzen da eguneroko euskera hutsezko prentsari duen garrantzia eta babesa eskeintzea.
Horretarako Goierriko udalek, eguneroko euskeraren erabilera normalizatze bidean, ezinbesteko tresnatzat jotzen dute HITZA.
Helburu horiek lortzeko, lankidetza hitzarmen hau sinatzen dute, bere edukiak ondoko klausulak dituelarik.

KLAUSULAK

Lehena: Hitzarmen honetan, Goierriko Udalen eta HITZAren arteko hitzarmena sinatzen da, urte bateko iraupenarekin. Hala ere, lankidetzaren helburua epe luzekoa denez, lankidetza bera ere iraunkorra izan dadin nahi dute bildutako aldeek, urtez urteko xehetasunen gainetik.

Bigarrena: Goierriko HITZA-k, euskara hutsezko prentsa objetibo, plural eta administrazioekin lankidetzan egiteko konpromezua hartzen du.

**Hirugarrena:** Goierriko HITZA.-k epe horretan emango duen eskualderako komunikazio zerbitzua finantziatu ahal izateko Goierriko Udalek biztanleko 2€-kin lagunduko dute.

**Laugarrena:** Goierriko Udalek, Goierriko HITZA.-ko arduradunekin batera eratuko den jarraipen batzordean parte hartu ahal izango dute, urtean gutxienez hiru aldiz elkartuko direlarik. Udaletako eta Goiekiko ordezkariak izango ditu batzorde honek eta bertan, edukiak, formak, egoera ekonomikoa, etorkizunerako ekimenak eta abar aztertuko dira.

**Bostgarrena:** Udalek ez dute bere gain hartzen hitzarmen honetan espreski agertzen ez den erantzunkizunik.

**Seigarrena:** Hiru aldeak ados egonez gero, urtero hitzarmena sinatu beharrik ez da egongo. Horrela, norbaitek kontrakoa adierazten ez badu, automatikoki urtebete gehiago luzatuko da hitzarmena.

Horrela jasota gera dadin eta adostasuna adierazteko, honako hitzarmen hau hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek."

**6.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**. EBPN eta bere Plan Estrategikoa, 2006. urtera hedatzea eta 2006ko kudeaketa-plana egitea.

Alkateak Aitor Aldasoro jaunari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

"Beasaingo Udalak, 2003ko maiatzaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onetsi zuen 2003-2005 hiru urteko eperako eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin (HPS) adostuta eta hark onartuta, epe horretarako Plan Estrategikoa onetsi zuen. Horren ondorioz, ondoren, 2003, 2004 eta 2005 urteetako Kudeaketa-planak idatzi eta onetsi izan dira urtez urte.

Hiru urte hauetan, Plan Estrategiko horretan helburutzat jarritako arloak landu dira, baina ez dira beren osotasuneko asebetetze-mailaraino iritsi eta oraindik ere bada zereginik izendatutako eginkizunak erabat burutzeko.

Bestalde, Plan Estrategikoak onetsi eta abiatuak dituzten udalerri gehienek, 4 edo 5 urterako eginak dituzte plan horiek eta HPStik bertatik ere adierazi zaigu gure 3 urteko Plan Estrategikoa bera 4. urtera luzatzeak izango lukeen egokitasuna. Horretarako, noski, Udalak ontzat eman behar du asmoa.

Arrazoi horiek kontuan hartuta, Euskara-batzordeak, EBPNren jarraipen-batzordeak hala proposatuta, ontzat du lehen 3 urterako egindako EBPN eta bere Plan Estrategikoa 4. urtera (2006ra) ere urtebetez luzatzea. Beraz, Udalbatzari ondorengo pr9oposamena egiten dio:

**PROPOSAMENA:**

2003-2005 urteen arteko eperako 2003-05-08an Beasaingo Udalak Osoko Bilkuran onetsitako EBPN eta bere Plan Estrategikoa, 2006. urtera hedatzea onestea eta horren arabera 2006ko Kudeaketa-plana egitea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): "Votamos a favor, pero pedimos que no se discrimine una vez más, a modelos lingüísticos como puede ser AEK".

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**7.- EBren MOZIOA**. Baratze Ekologikoak kudeatzeko Planaren garapenaz.

Alkateak, Iñaki Saldaña EBko ordezkariari hitza eman eta honek honela dio: "Como quiera que se está trabajando en el desarrollo de la Agenda 21, tal vez ese sería el foro adecuado para debatir la moción, por ello trasladamos el debate de la misma al seno de la Agenda 21, y la retiramos del orden del día del Pleno."

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira.

Jose Antonio Ibaibarriaga jaunak (EA): "El tema es muy interesante y valoro de forma muy positiva el que se pueda tratar en el foro de la Agenda 21."

**8.- BEASAINGO EMAKUMEEN ELKARTEAREN MOZIOA**. Emakumeen arloko ordezkaritzak aurkeztuta, emakumeen mundu-martxari babesa emanez.

Alkate jaunak, Ana Asla emakumeen arloko ordezkaritza duenari hitza eman eta honek mozioa irakurri du:

"**2005EKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXARI BABES MOZIOA**

Emakumeen Mundu Martxa datorren urriaren 17an amaitzen da Burkina Fason, Afrikan, hilabeteetan zehar eta bost zutabetan banatuta, emakume guztiekiko Justizia eta Elkartasuna eskatuz Planeta osoa zeharkatu ondoren.

Guk ere, Goierri eta Urola Garaiko herrietako emakumeok horren alde egiteko aukera izan genuen, joan den maiatzaren 26an Martxak gure eskualdeak zeharkatu zituenean. Ongietorri ekitaldi xume batekin jaso genuen orduan.

Martxa honek jarraitzen dituen helburu nagusienak hauek dirá: pobreziaren eta indarkeriaren aurkako borroka. Helburu hoiek dirá, munduko emakume eta pertsona erdeinatuenekin elkartzen gaituztenak.

Gure artean, Mendebaldeko zoko honetan ere, jende gehiegi bizi da Erakundeek pobreziaren ataría bezala ezagutzen duten mutur horretan.

Emakume alargunak, senargabeak eta seme-alabak dituzten bananduak, emakume gazteak eta etorkinak, beste herrialdeetatik etorritakoak... asko dirá "ongizate egoera" bezala definitutako bizi baldintzetara iristen ez direnak; beren diru sarrerak ez dirá bizi baldintza duina bermatzeko nahikoa.

Guretik gertu, gure eskualdeetan, gaur egun ere asko dirá beraien bikotekideen eskutik tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak. Eta gehienek, isilpean gordetzen dituzte, mina eta amorrua beren etxeetan jasanez. Zorionez, hala ere, geroz eta emakume gehiagok salatzen dute indarkeria horí, aspaldian amaituta behar lukeen egoera bat argitara ateraz.

Guzti horiei, gure eskualdeetan sufritzen ari diren emakumeei, gure babesa eman eta eskua luzatzen diegu sufrimendu horretatik irteten laguntzeko. Emakume guztien arteko elkartasuna guztiz beharrezkoa da bidegabekeria horrekin amaitzeko. Eta horri, gizonezkoak ere batu behar zaizkio.

Gure elkartasuna, bidegabeko mundu honetan biktima diren emakumeei, esplotazioaren biktima direnei, egoismoaren, gerraren eta indarkeriaren biktima direnei eskaini nahi diegu. Bigarren mailako hiritar moduan hartzen direlako, askotan emakume jaio izanagatik bakarrik.

Horregatik, beste mundu bat eraikitzea proposatZen dugu. Pertsonaren osotasuna, aniztasuna, eskubideak eta askatasunak errespetatuak izan daitezen.

Guk, emakumeok, udaletxe honi zera eskatzen diogu:

- Emakumeen Mundu Martxaren helburuekin elkartasuna adierazi dezala, pobrezia eta indarkeriaren aurka.
- Munduko gizon eta emakume behartsuenei laguntza eskaintzeko babesa azaldu dezala.
- Erakundeetan salatu ditzala, munduan milioika emakumek jasan behar izaten dituzten bidegabekeriak: harrika hiltzea, gehiegikeriak, sexu esplotazioa eta beren askatasuna murrizten duten integrismo mota guztiak.
- Neurri zehatzak har daitezela, gure eskualdean bizi diren emakumeak pobrezia eta indarkeria egoeretatik lehen bait lehen irten daitezen."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): "Totalmente a favor. Reivindicamos que el 25 de noviembre, que es el día contra la violencia de género, no sea sólo un acto de movilización, sino que por parte de este Ayuntamiento sea algo más.

Julio Herreos jaunak (PP): "Apoyo total por parte del Partido Popular a esta moción. Apoyo a todas las mujeres que sufren malos tratos u otras vejaciones. No se debe permitir a hombres, que maltraten a mujeres. Estos no son hombres, sino animales. El hombre de verdad no hace sufrir a una mujer, sino que la hace feliz. Hay que acabar con estas inconsciencias, uniéndonos todos."

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da mozioa.

**9.- ALKATETZAREN EBAZPENAK**. 2005eko irailaren 27tik, urriaren 24ra bitartean Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2005eko irailaren 27tik, urriaren 24ra bitartean Alkateak emandako ebazpenak.

Eskaera eta galderetara pasatu baino lehen, Iñaki Saldaña jaunak Kataluniako Estatutua onesteari buruzko mozioa aztertzea eskatu du.

Alkate jaunak, aurkeztutako proposamena bozkatzea erabaki du, premiazko prozedura erabilita mozioa tratatzea onartzen den ala ez jakiteko.

Bildutakoek aho batez onartu dute, mozioa tratatu eta bozkatzea.

Alkateak, Iñaki Saldañari hitza eman eta honek mozioa irakurri du:

“**MOCIÓN RELATIVA A LA APROBACIÓN DEL ESTATUTO DE CATALUÑA**

JUSTIFICACIÓN

El Parlamento Catalán aprobó el 30 de Septiembre el proyecto de reforma del Estatut d'Autonomía de Catalunya con el respaldo de 120 de 135 diputados de la Cámara catalana. Este Texto, que deberá ser sometido ahora a su toma en consideración y debate en el Congreso de los Diputados, representa el sentir mayoritario de la sociedad catalana y, como tal, debe ser aceptado y respetado en su integridad.

El nuevo Estatut representa la capacidad de diálogo, acuerdo y entendimiento entre sensibilidades e ideologías distintas que han sabido pactar un nuevo marco de convivencia, que define un nuevo modelo de Estado basado en el reconocimiento de la plurinacionalidad, la pluriculturalidad y el plurilingüismo. Asimismo, el Presidente del Gobierno español, José Luís Rodríguez Zapatero, se comprometió en su campaña electoral a aprobar cualquier propuesta provinente del Parlamento catalán sin cambiar nada.

MOCIÓN

1.- El Ayuntamiento de Beasain muestra su apoyo al proyecto de nuevo Estatuto, ratificado en el Parlamento de Cataluña, por entender que el mismo representa el valor del diálogo, el acuerdo y el entendimiento, que se ha materializado en un pacto que representa la voluntad mayoritaria de la sociedad catalana.

2.- El Ayuntamiento de Beasain insta al Congreso de los Diputados a que acepte y respete el contenido íntegro del nuevo Estatut, porque así lo han ratificado las instituciones competentes para ello, que son quienes tienen la legitimidad para defender los derechos que le asisten a la sociedad catalana a decidir libre y democráticamente su futuro.”

**“KATALUNIAKO ESTATUTUA ONESTEARI BURUZKO MOZIOA**

ZURIKETA

Kataluniako Legebiltzarrak irailaren 30ean onetsi zuen Kataluniako Autonomía Estatutuaren berrikuntza-proiektua Kataluniako Ganbarako 135 diputatuetatik 120 diputaturen babesarekin. Testu horrek, orain Espainiako Diputatuen Kongresuan eztabaidatu eta kontuan hartu beharko denak, Kataluniako gizartearen gehiengoak sentitzen duena adierazten du, eta hori hala izanik, bere osotasunean onartu eta errespetatu egin behar da.

Estatut berriak, ideología eta sentipen desberdinen artean elkar ulertzeko, elkarrizketarako eta adosteko izandako gaitasuna erakusten du, izan ere jakin izan

dute nazioaniztasunaren aitormenean oinarritutako Estatu-eredu berri bat definitzen duen elkarbizitzarako marko berri bat hitzartzen. Era berean, Espainiako Gobernuko Presídenteak, José Luis Rodríguez Zapaterok, hitz eman zuen hauteskunde-kanpainan, Kataluniako Legebíltzarretik zetorkeen edozein proposamen ere ezer aldatu gabe onesteko.

MOZIOA

1.- Beasaingo Udalak, bere babesa eskaintzen dio Kataluniako Legebiltzarrak onetsitako Estatutu berriari, izan ere, berori baíta elkar ulertzeko, elkarrizketarako eta adosteko izandako gaítasunaren balíoa azaldu eta Kataluniako gizartearen gehiengoaren borondatea biltzen duen ituna.

2.- Beasaingo Udalak eskatu egiten dio Espainiako Diputatuen Kongresuari, onartu eta errespeta dezala oso-osorik Estatut berriaren edukia, izan ere, hala onartu eta berretsi baitute horretarako eskuduntza duten Kataluniako erakundeek, eta haiek dirá Kataluniako gizarteak bere etorkizuna modu askean eta demokrazia bidetik erabakitzeko eskubidea defendatzeko zilegitasuna dutenak."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Julio Herreros jaunak (PP), mozio horren aurkako mozioa aurkeztu du:

"**MOCIÓN DEL GRUPO POPULAR DE RECHAZO A LA PROPOSICIÓN DE LEY QUE APRUEBA UN NUEVO ESTATUTO PARA CATALUÑA**

D. Julio Herreros Serna , Portavoz del Grupo Municipal Popular en el Ayuntamiento de Beasain, en nombre y representación del mismo y al amparo de lo establecido en los artículos 91.4 y 97.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales de 1986, por razones de urgencia, eleva al Pleno de la Corporación para su debate la siguiente

**Moción**

El día 30 de septiembre de 2005, el Parlamento de Cataluña ha aprobado un proyecto para un nuevo Estatuto en Cataluña. La aprobación de esta propuesta de reforma representa en realidad una reforma constitucional encubierta y supone un desafío al pacto constitucional de 1978 sobre el que se ha sustentado nuestra convivencia democrática durante más de veinticinco años.

El texto de este Estatuto, abiertamente contrario a la Norma Fundamental de todos los españoles, define a Cataluña como una Nación, establece una relación de igual a igual entre Cataluña y España como si fueran dos realidades diferentes y dota a esta Comunidad de un modelo de financiación de carácter bilateral ajeno al principio de solidaridad.

Es evidente que con la aprobación de este Estatuto, nuestro país está viviendo uno de los momentos más graves de su historia democrática. Todas las instituciones que

conforman España y especialmente todos los Entes Locales que la integran y vertebran, han de colaborar para mantener el espíritu de consenso de 1978 y el respeto a la Constitución que todos nos dimos, a fin de que España siga siendo una realidad unida, plural y solidaria, que garantice la igualdad entre los españoles y una financiación suficiente que permita el acceso de todos los ciudadanos a los mismos servicios públicos de calidad.

Por ello, desde el Ayuntamiento de Beasain, rechazamos esta reforma estatutaria que, de consumarse, supondría una reforma en toda regla de nuestro modelo de Estado, a través de un procedimiento que no es el constitucionalmente previsto, sin contar con la necesaria consulta a todo el pueblo español.

Por todo lo anteriormente expuesto, se somete a la consideración del Pleno la aprobación de los siguientes acuerdos:

1.- El Ayuntamiento de Beasain manifiesta su rechazo a la Proposición de Ley por la que se aprueba un nuevo Estatuto para Cataluña, por ser contraria a la Constitución española de 1978, vulnerar la igualdad de todos los españoles y romper el equilibrio y la solidaridad entre las regiones y nacionalidades que integran el Estado español.

2.- El Ayuntamiento de Beasain afirma que la única Nación, de acuerdo con la Constitución de 1978, es la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y considera incompatible con esta proclamación el reconocimiento como nación de cualquier Comunidad Autónoma, así como la idea de España como un Estado plurinacional.

3.- El Ayuntamiento de Beasain manifiesta su rechazo rotundo a que mediante pretendidas reformas estatutarias se proceda a una reforma constitucional encubierta, sin respetar los procedimientos constitucionalmente establecidos, sin obtener el respaldo parlamentario exigido y sin contar con la opinión del pueblo soberano.

4.- El Ayuntamiento de Beasain rechaza cualquier pacto bilateral sobre financiación autonómica por considerarlo injusto, insolidario, gravemente perjudicial para los intereses de nuestra Comunidad Autónoma y del resto de España. Y por perjudicar el acceso de todos los ciudadanos a unos servicios públicos de calidad y en condiciones de igualdad.

5.- El Ayuntamiento de Beasain pide a los Diputados y Senadores elegidos en las circunscripciones electores comprendidas en esta Comunidad Autónoma que rechacen con su votos la aprobación en las Cortes del nuevo Estatuto de Autonomía de Cataluña."

Alkateak esan du, lehenik aurkako mozioa bozatuko dela, baina aldez aurretik, hitz egiteko txanda eman da

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Con lo que el parlamento de Cataluña propone respecto de la financiación, para nada rompe la caja única, sino que con el reparto económico, lo que propone es un modelo mucho más solidario.

Concepto de nación. Esta palabra determina los pueblos que por idiosincrasia son diferentes. Además en la Constitución se reconoce a Cataluña, a Euskadi y a Galicia como entes diferenciados. El que no lo reconozca es su problema.

Derecho a la libre autodeterminación, que no exige el parlamento catalán, es algo que debería de exigir.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “A mi sinceramente es un asunto que me aburre, porque entre estas cosas que son muy delicadas, me gusta escuchar a la gente que de verdad entiende, con sus diferentes criterios, sus diferentes sabidurias, pero que entienden del asunto, porque yo no entiendo nada, y por eso me gusta escuchar. Como estas cosas están donde están, se han hecho como se han hecho y además estoy convencido de que van a salir perfectamente, sin vulnerar ninguna Ley, la harán los que entienden de ello, y seguramente los ciudadanos tendremos que opinar al respecto. Hay que dejar a la gente que trabaje y que trabaje en absoluta libertad. Votaremos en contra de las dos mociones.”

Jon Kortaberria jaunak (EA): “Yo sin entrar en más, decir que lo que pone aquí de que es evidente que el texto de ese estatuto es contrario a la Norma Fundamental de todos los españoles, es falso, es mentira y es una barbaridad. Hasta que no se pronuncie el Tribunal Constitucional, no se puede decir que es constitucional ni anticonstitucional. Eso se verá, lo demás son especulaciones.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Gure aldetik aurkako mozioaren aurka gaude. Arrazoiak ezagunak dira eta ez goaz hemen gogoraraztea. Apoyamos la moción que presenta EB, porque se trata de derechos fundamentales que estamos reivindicando para nuestro pueblo y no queremos de ninguna forma negarlo, al contrario queremos apoyar al pueblo catalán.”

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Replicar al partido socialista que dice que nosotros no tenemos ni idea y que dejemos que trabaje la gente que entiende, sabemos que pasó con lo que decicdió el parlamento vasco y el portazo que nos llevamos. Y lo mismo va a pasar con los ctalanes.”

Alfonso Segde jaunak (PSE-EE/PSOE): “Perdona Iñaki, tienes la mala costumbre de hacer interpretaciones gratuitas. En ningún momento he dicho que no entendais nada del asunto. Simplemente he dicho que me gusta

escuchar a la gente que entiende del asunto, que es sustancialmente diferente.”

PPk aurkeztutako aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 1 (PP)
Aurkako botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE; EB)
Abstentzioak: 0

Aldeko botoak aurkakoak baino gutxiagoak direnez, ez da onartu aurkako mozioa.

Jarraian, EBk aurkeztutako mozioa bozkatu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA, EB)
Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE; PP)
Abstentzioak: 0

Beraz, Kataluniako Estatutua onesteari buruz EBk aurkeztutako mozioa onartu egin da.

## 10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ANTZIZAR KIROLDEGIKO KUDEAKETA

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Hay rumores, comentarios de que habido, no me atrevo a llamarles contactos, pero si algún intercambio de opiniones, en la forma de cómo se puede gestionar en su momento el complejo del polideportivo Antzizar. Si eso es verdad, a nuestro grupo le gustaría que el Alcalde tuviera la amabilidad de informarnos.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Estamos en una primera fase de estudio y de reflexión sobre el tema, que pienso se trasladará a los portavoces de los grupos correspondientes, cuando tengamos algo desarrollado. No tengas duda de que eso lo haremos. En estos momentos estamos en fase de intercambio de datos, de opiniones y demás con un objetivo que se está clarificando. Cuando tengamos algo más madurado, no tengas duda de que compartiremos con los portavoces.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Ya, pero parece ser que los contactos tienen nombre y apellidos. Claro si hablamos de nombres y apellidos,

podemos hablar de intereses. Parece que la empresa que supuestamente se ha hablado con ella, es una empresa que gestiona otros polideportivos, con lo cual supongo que va a tener una opción de entrar aquí en Beasain. No sé si esto es muy correcto.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “A esa empresa desde el principio, en cuanto al diseño del polideportivo le hemos tenido también como asesora, y en este momento el gerente del polideportivo está haciendo también un estudio y puede contar con la asesoría de esa empresa que de ninguna forma, si se va a un concurso va a ser la adjudicataria. Será si es la mejor, pero de lo contrario no. Estamos contrastando. Es el responsable del polideportivo Antzizar, el que está haciendo la recogida de datos de informacion, y estamos acumulando esos datos, para que de aquí a poco tiempo tengamos algo más maduro y compartamos con los portavoces correspondientes. Tendrás información.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.